

ttipi-ttapa

1993.eko Urtarrilak 24

101. zenbakia

dohain banatzen da



**ALKATE HAUTESKUNDEAK
BAZTANEN**

1992ko azaroak 22 - ARGIA eguna Euskal Herri osoan

ARGIA

KIROLA KIRIATIK ANTSEGA
TODOROVEN KORPILEAN

GIZARTEA
NAFARRORRIK IZARRAK
EZIN ARTEN

KULTURA O SAIO IAKO
HERRIAREN ETA ITZALAK

PERTSONAIK
ESKER GAIZTOKO
UNIBERTSITATEAN

**PUNTAKO
INFORMAZIOA
ASTERO**

GABRIEL ARESTI: «ITZALA EMAN NAHI DUENAK ARGIA HARTU BEHAR DU»

Argia: Eusko Argitaletxea, Euzko Herriko Erakundeak

01406
778402139093

**EUSKAL HERRI
OSORAKO**
euskaratu hutsean
egiten den
astekari bakarra

■
**MENDE BATEKO
TESTIGANTZA**
Aldaketa
politiko eta
kultural guztien
ispilu

■
**LERRO
INDEPENDIENTEA**
Informazio
bizia, zabala,
zorrotza eta
zaindua

■
IRAKURLE UGARI
CIES enpresaren
arabera, 40.000
irakurletik gora

ARGIAREN HARPIDEDUN
IZAN NAHI DUT
(48 Ale eta urtekaria)

IZEN DEITURAK

.....

HELBIDEA

.....

Tel

HERRIA

.....

HERRIALDEA

.....

K.P.

BANKU EDO
AURREZKI KUTXA

.....

SUKURTSALA

.....

SUK. Zerbakia

.....

KONTUAREN
ZENBAKIA

.....

Harpidetza sariak: Hego Euskal Herria:
10.300 pzta. / Ipar Euskal Herria: 685 libera/
Estatu espainiarra: 10.300 pzta. /
Beste atzerriak: 13.450 pzta. / Airez: 21.300

ARGIA, Industrialdea 1 eta 2 pabilioiak 20160 LASARTE-ORIA

10 ARRAZOI ETA BESTE BAT GEHIAGO IKAN EZ MATRIKULATZEKO

- 1.- IKAN eta vascuence ikastearen aitzakiaz, ideologia maltzurak predikatzen dira.
 - 2.- Vascuence ikastea ahulezia eta adore faltaren adierazlerik nabarmenena da. (Teresa de Calcutak ez daki zipitzik ere).
 - 3.- Behin matrikulatuta, kolesterol indizeak jeitsi beharrean Jesukristoren igoera sufritzen du.
 - 4.- Vascuence jakitea ez da ezinbestekoa kulebroiak ulertzeko.
 - 5.- Momentuz Euskaltegian HIES kasurik ez direla ezagutu egia bada ere, birusa hurbil baino hurbilago dago dudarik gabe.
 - 6.- IKAN matrikulatzeak ez du desgrabatzen.
 - 7.- Doña Encarnaren alaba matrikulatu eta handik bi urtetara haurdun xamar ikusi zuten kalean.
 - 8.- Vascuence ikas daitekeela guztiz faltsua da neurri batean. (Zientifikoki nahiko garbi omen dago gainera).
 - 9.- Baiezta gabe badago ere, badirudi Euskaltegiko irakasleren bat zorriez josita ibili dela behin baino gehiagotan.
 - 10.- Masoka baldin bazara, matrikula zaitez!
- Beste bat.- Aunitz dira.

Garaipena Gure eskuetan dago
MAV
(Muerte Al Vascuence)



MATRIKULATZEKO EPEA:

Urtarrilaren 11tik 29ra

Telefonoa 637796

BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA IKA



non - zer

-
- 4** **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7** **HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8** **IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/24** **HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 25** **ERREPORTAIA:** Baztanen, herrietako alkate - juradoen hauteskundeak sortu du zer erranik
Joxemanuel Irigoien
-
- 28** **KIROLAK:** Beti Gazte - Gure Txokoa: Zortzi urte beranduago Bortzirietako derbya.
-
- 30** **MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 5.300 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Txema Etxegia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernu....

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)
ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzzi637755

Arantzza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

Elizondo580924

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzarlan515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

Botikak

► **Urtarrilaren 16-17an**, Etxalar, Ituren eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Urtarrilaren 23-24ean**, Bera, Narbarte eta F. Elizalde (Elizondo).

Deialdiak**ARANTZA****EVEREST**

Urtarrilaren 15ean, arratsaldeko 7etan, Felix eta Alberto Inurrategi mendigoizaleen hitzaldia eta diapositiba emanaldia.

Antolatzaile: Zahar Txokoa.

Deialdiak

► **BERA**, Urtarrilaren 12an, Euskara Batzordearen bilera.

► **ARANTZA**, Urtarrilaren 14ean, Euskara Batzordearen bilera.

► **LESAKA**, Urtarrilaren 15ean, Euskara Batzordearen bilera.

► **IGANTZI**, Urtarrilaren 15ean, Euskara Batzordearen bilera.

► **BERA**, Urtarrilaren 21ean, Euskara Mankomunitatearen aholkularitza batzordearen bilera

Ekitaldiak**IÑAUTERIAK****LEITZA**

Urtarrilaren 24, 25 eta 26ean. Egunero gauez, Naygi taldea eta Los Incansables txaranga. Ikus xehetasunak 19. orrialdean

SAN ANTON

San Anton Eguna ospatzeko ekitaldi ezberdinak daude antolatutak hainbat herritan: Baztan, Ituren, Zubietta...

Bota bertsoa**Iruñe SANSIÑENA**

Baztango Bertso Eskolako

Gaia: Urte berria**Neurria:** Zortziko haundia

Pasa berri den urtea izan nahiko trakets ta arlote urtean zehar jasan ditugu euskaldunok zenbait kalte gertatu dena ikusita gero ez nago alai baizik triste urte berria bestea baino hobea izango ote?

Nik urte berri eskatzen dizut oso intentzio onez herri hau diru ta osasunaz osa ezazu mesedez Euskal Herritik kanpo daudenak etxera itzuli bitez nere ametsak bete itzazu gutxi kostan edo nekez

AGENDA

Zinema

► LEITZA

Urtarrilaren 15-16ean 10,30etan eta 17an 8etan "Instinto básico". Urtarrilaren 17an 5etan, "Furia ciega".

► DONEZTEBE

Urtarrilaren 16-17ean "La mano que mece la cuna". Urtarrilaren 23-24an "El cabo del miedo".

Bertsokak

► GOIZUETA

Urtarrilaren 15ean, gaueko 11etan «Gorgori» baserriaren aldeko bertso saioa, zine aretoan. **Bertsolariak:** Lizaso, Sarasua, Arozena, Murua, Telleria eta Silveira.

► GOIZUETA

Urtarrilaren 24ean, 7,30etan, zine aretoan. **Bertsolariak:** Egaña, Lizaso, Sarasua, Euzkitze, Peñagarikano, Telleria eta Murua.

Antolatzaile: IKA.


Gastronomia

KONEJOA PARRILLAN

Osagaiak 4 lagunendako:

Bi konejo, baratzuri buru bat, olioa, gatza, pipermi-na, baso batardo xuri, kopa bat koñak eta ozpina.

Konejoa erditik ebaki, ga-



Jesus Mª Jorajuriak emana
SUNBILLA

tza bota eta parrillan egi-ten paratu. Egina dagoe-

nean puskatan xehetu eta kaxuela bero batean pa-ratu.

Ondoren, zartagi batetan olioa, baratzuria eta pipermi-na paratu xigortu arte. Konejuari gainetik bota, ardoa, koñaka eta ozpi-narekin batera.

Azkenik, kaxuela tapatu eta txapa bero batean utzi hamabortz bat minutuz, haragia pixko bat xamurtu dadin.

Baserriko feria



► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 ki-lokoa): 4.520 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 120 pzta/kilo **Zerramak:** 55-75 pzta./kilo bizirik.

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....525
1.koa.....500
2.koa.....480

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra.....535
1.koa.....510
2.koa.....480
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzka-ten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 340
Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri-ona: 390 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):
Nabarrak: urruxak 15.000 eta idixkoak 22.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 23.000 eta idixkoak 33.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza»

Aseguro
mota
guziak

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



MUSIKA DENDA
BERA ☎ 631059

- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...



11 galdera ilabur

Zinema



Jose Angel Etxeberria
Berako Puy ostatukoa

- ▶ Zer zenbakiko zapatak erabiltzen dituzu? 43a.
- ▶ Koktelak egiten badakizu? Bai.
- ▶ Tabako usaia gustatzen zaizu? Goizean ez.
- ▶ Arratsaldeko hiruak ala goizeko bostak? Goizeko bostak.
- ▶ Negoziak ala kirola? Bada denbora denentzat.
- ▶ Ostatuak ixtera derrigortzen duen ordurik, bai ala ez? Ez, goizaldeko orduak hoberenak dira denentzat.
- ▶ Frantsesa ala espainola? Euskara.
- ▶ Negua ala uda? Negua.
- ▶ Siestarik egiten duzu? Bai, batzutan.
- ▶ Negoziotan suertea izateko, truko-rik? Lana egitea.
- ▶ Irakurri duzun azken liburua? Aldizkariak irakurtzen ditut.

Valladolid edo Seminci

Valladolideko cinema aste internazionala negu hasieran bukatu arren, udaberria ongi hasi arte ez ditugu ikusiko bertan aurkeztu diren filmak. Hala ere batzuk bakarrak ikusiko ditugu eta egun guttiz komertzialak ez direlako.

Estatu Batuetako filmak betetzen dituzte kontrato bortxatuez gehienetan gure hirietako zinema pantailak eta gaineko filma interesgarriak ikusteko aukera gero eta murriztagoa.

Valladolideko festival edo



Seminci deitzen zaion aste honek bi bentaja haundi dauzka: ez dela kompetitiboa eta bertze festival ospetsuetan ezaugarritzen diren filma berezi on eta aipagarrien presentazio bakarra. Festivalen festibala daitu dezakegu. Berlin, Cannes, Venezia, Locarno eta Donostian

agertzen diren nobedadekin egiten dute Valladolideko aste hau.

Aktore famatuena zain ez da inoregoten eta ez

ditu milaka milioi pezetan mugimendu beharrik. Zine ona argi eta garbi.

MARIANO

- «Léolo» J.Claude Lauzan (Canada)
- «Una estacion de paso» Gracia Querejeta
- «Kaivo» Pakkalehto (Finlandia)
- «Olivier Olivier» Aquieszka (Holanda)
- «Frend fly hemifran» S. Blies (Suedia)
- «Ninos de la carretera» U.Egger (Suiza)
- «Mejoren intenciones» Bille August
- «El ojo público» Howard Franklin

CLAAS S. Semper



SAME

Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN

BERAn, 631238Tfnoan, Agerra Industrialdean

TXOKO erretegia

Bazkari, afora eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

eskulan tailerra



Sebastian Errazu 1(943) 61 83 97 IRUN

Ikastaro irekiak urte guzian:

- ♦ Makrame eta tridimensional
- ♦ Saskigintza
- ♦ Telar eta saskigintza
- ♦ Eskaiola murgotuz
- ♦ "miga de pan"...

Otsailan hasten gara



Iñauterien garaia iritsi zaigu: Baztango Orabidea, Ituren-Zubieta eta Leitza-koekin hasiz, izanen da hemendik aintzina, joaldunak, zagi-dantzariak, zakuzarrak eta bertze hainbertze pertsonai ikusteko aukera herri zokoetan. Seriotasuna etxean gorde eta arropa zaharrak astintzeko garaia da.



Eguberritako ospakizun guztiak bukatu zaizkigu. Gehienok sabela beteagoa eta kartera arinagoarekin bukatu dugu. Errege egunarekin joan zaigu bertze urte batez urteotako ilusioa

AITOR Arg.

Bertizko Turismo Konsortzioa

Zuzendaritza karguak izendatuak eta estatutuak behin behinekoz onartuak



Baztango kontzejala den Pedro Perez Uriz dugu Bertizko Turismo Konsortzioaren Lehendakaria

Abenduaren 29an burutu zen Bertizko Turismo Bulegoan, Turismo Konsortzioaren estatutuak onartu eta zuzendaritza karguak aukeratzeko Batzarra. Lehendakaritzarako Baztango Kontzejala den Pedro Perez Uriz aukeratu zen eta Lehendakari-ordearen postua, 'Donamariako Benta' jattetxeko Imanol Luzuria-

gak beteko du. Hauez gain, 10 bokal aukeratu ziren; 5 udal-ordezkarriak bezala (Elgorriaga, Doneztebe, Bera, Lesaka eta Urdazubikoa) eta bertze 5ak dagoeneko osatuak dauden elkarteetatik bana (Ostalari, Ostatu, Komerztzio, Jatetxe eta Agroturismo Etxe elkarte bakoitzetik ordezkari bana, alegia).

INFORMAZIOA:

- Nominak
- Aseguro Sozialak
- Lan-kontratu bonifikatuak
- Enpresa berrien sortzea
- Diru-laguntzak
- Errenta Deklarazioak
- Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non:** MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



LESAKAKO ALKATE JAUNARI:

1993ko urtarrilaren 3an "Diario Vasco" egunkarian azalduko zure eskutitza irakurri ondoren, berriro ere hanka sartu duzula uste dut. Nere eritzia puntu batzutan laburtuko dizut:

1. Herriarengana, askotan bezala, erdara hutsean zuzentzen zara. Agian oraingoan ere arazo teknikoak izango dira.

2. Zure eskutitzaren arabera, ekintza hauek burutu dituztenak oso erraz iden-

tifikatzen dituzu, behintzat politikoki. Jakin nahiko nuke zertan oinarritzen zaren horrelako adierazpenak egiteko.

3. Oraindik enteratu ez bazara, helburu politikoak dituzten eta sistema antidemokratiko honen aurka (demokratiko izatera iristeko asko falta baita) burutzen diren ekintza guztiak errebindikatzen dira, ekintza hori egitearen arrazoiak aipatuz. Eta orain galdetzen dizut: ze helbururekin bota

daiteke zuhaitz bat edo erre daiteke zakar bat? Nere ustez argi dago ekintza hauek mozkorraldi bateko astakeri batzuk direla, eta besterik ez.

4. Azkenik, jakin ezazu ni ere gauza horien aurkako nagoela, baino horregatik ez diot arrazoi eta frogarik gabe inorri errua botatzen. Zuk izen eta abizenak ez dituzu aipatu, baino zure adierazpenak norengana zihoazen erraz asma dezakegu. Horrela, zure alderdiko batek azkeneko

ttipi-ttapan aipatutako esaera batekin amaituko dut, guztiontzat aplikagarria baita: "*Ondokoaren begiko belar idorpuska hainbeste ez begiratu eta norberaren enborra gehiagoz zaindu behar da*".

Lesakako gazte bat

BERTSOLARI TXAPELKETAZ

Nafarroako Bertsolarien Lagunak Elkarteak berriz ere ekin dio Nafarroako XXIIgarren bertsolari txapelketa antolatzeari. 1993ko uda-

berrian ospatuko den Nafarroako txapelketatik, 1993ko udazkenean ospatuko den Euskalerrirako, ordezkariak aukeratuko dira.

Eskutitz honen bidez, Abenduaren 19an Elizondoko bileran erabaki zen bezala, izen emateko deialdia zabaltzen dizuegu. Izen emateko epea, Urtarrilak 1etik Urtarrilak 22ra izanen da, eta telefono honetara egin behar da: 228232

Nafarroako Bertsolarien Lagunak



ESTETIKA * SOLARIUM

GIMNASILEKUA

Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - BERA

SAROB
okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

ZONALDE HONETAKO 5 ETXETIK 4tan
ttipi-ttapa HARTZEN DUTE
ZURE KLIENTEEK ERE ttipi-ttapa HARTZEN DUTE



MOLINERO
PINTURAK

Etxe barneko hezetan eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberrako prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40
BERA

EKAITZA
OSTATUA

Altzate - BERA

Zabortegiko urek Intzolako erreka kutsatzen dutela eta

Hiri-hondakinen Mankomunitatea kezkaturik dabil sortu den arazoarekin

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Abenduaren 21ean Ingurugiro Saila, NILSA, Zabortegia egin zuen ingeniaria eta Mankomunitateko ordezkarien artean bilera burutu zuten Iruñan arazoari irtenbideren bilatzeko. Bitartean, hilabete batez zabortegiak ur zikinak biltzeko duen depositora ailegatzan den ur kopurua eta euriek sortzen dutena neurtu egingen da.

Dirudienez, proiektua egin zenean ez zen antze-man lur azpian ura sortzen zela, eta orain, lur gainean iada zabor dexente pilatua dagoenean, ia-ia ezinezkoa da ur hori behar bezala bideratzea. Iruñatik proposatzen dutenez, ur eta lohi horiek egunero Etxalar edo Lesakako depuradoretara garraiatzea litzateke soluzioa. Kontua da, Gobernuak ez duela ordaindu nahi horrek sortuko duen kostua.



Teknikoek hasieran uste zuten baino ur-zikin gehiago sortzeak, Intzolako erreka kutsatzea ekarri du. Argazkia: JMI

Agerralandetako Cross Lasterketa

Hilabete honen 24ean, igandea, goizeko 10etatik aintzinerara, bi Cross Txapelketa burutuko dira Beran. Lehenik, Zona Mailako Eskolarteko Txapelketa kurrituko da, eta honetan, infantil eta kadetan ezik, bakarrik federatuek parte har dezakete.

Nafarroako Club Arteko Txapelketari dagokionez, kategoria ezberdinak parte har dezakete eta horretarako, hilabete honen 21 baino lehen izenak eman beharko dira Gure Txokoako 630314 telefonora deituz. Izan ere, Gure Txokoa baita antolatzailea.

W ttipi-flash

Ricardo Baroja Eskolako 8. mailakoek ikasbidaiaren alde saskiaren **zozketan**, 2.725 zenbakia suertatu zen saritua.

Julian Lekuona izanen da Berako Udalaren ordezkaria Bertizko Turismo Konsortzioan eta baita ere erakunde horretako bokaletatik bat.

M^a Nieves Astondoa Ametztoy izendatu dute Berako Bake Epaitegiko idazkari edo sekretaria.

Bera XXI. eta Gure Txokoa VII. **Ipuin Lehaketan** sari banaketa urtarilaren 23an izanen da Jarmotenean eguerdiko 12etan.

Labaiengo zabor-erregailua hondaturik dagoela eta, otsailaren 18a bitarte Malerrekako zaborrak Intzolako Zabortegira ekarriko dituzte.

LAINO
%30eko **DESKUENTOAK**
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

BOAN TAILERRA
CITROEN Banatzailea
KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

KLOXKA
Legia 11 - 63 06 64 BERA

IRAGARKI HAU 5.300 ETXETAN SARTUDA
ZUREA ERESARTUKODA
PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZGERO

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

OKANE
Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

KIROLAK ZELA
Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA

LESAKA


Udal kirolgune berriaren lanak hasi dira

Lehen fasean hiru piszina eta aldagelen etxola egiteko asmoa dago

AITOR AROZENA

92a bukatu baino lehen hasi ziren udal kirolgune berria egiteko lehen fasearen lanak. Fase honetan, konpetiziorako eta errekreorako piszina bana eta haurrentzako bertze piszina tiki bat (5 m. diametro eta 30 zm.tako sakontasunarekin) egingen dira. Eraberean, fase honetan etxola bat egingen da, bertan piszinetako eta bigarren fasean egingen den futbol zelairako aldagelak, ofizina, ostatu eta bertze zenbait gela kokatuz. Azkenik, fase honetan, aparkalekuak, berdeguneak eta aldagelak eta futbol zelaia batuko dituen lur azpiko pasagunea egingen dira.

Lan hauek Sunbillako «Construcciones Gazmendí» enpresak egingen ditu, 118.923.500 pezetaren truke eta 9 hilabetetan bukatua egon beharko dute.



Futbol zelaia 2. fasean Bigarren fasean, berriaz, belar artifizialeko futbol zelai bat egingen da, 125 milioi inguruko aurrekontuarekin.

Azkenik, oraindik zehaztu gabeko hirugarren fase batean polikiroldegi estalia egingen litzateke, gaur egun baratzak dauden tokia eta Andra Mari asiloa bota ondoren geldituko zen lekua probexutuz.



ttiipi-flash

- **Agiñan** paratuta zegoen Aita Donostiaren eskultura hautsi zuten abenduaren bukaeran «Aralar Komando Kulturalaren» izenean. Oteizak egingako lan honen ondoan, komunikabideentzako idatziak eta grabazioak utzi zituzten ekintza honen egileek.
- **San Anton** eguna dela eta inguruko herrietako ehundaka jende etorriko da hilaren 17an auzo horretako erromeriara.

Ongi bukatu eta ongi hasi

Beti Gazteko jubenilak momentu onean daudela ezin da ukatu. Iazko urteari bukaera emateko Irunen «Alberto Gorri» sari famatua irabazi zuten, maila haundiko taldeen aurka. Errege egunean berriz, Beti Gazteko jokalarik eta lehendakari izandako Jose Luis Larralde-ren omenez bigarren urtez jokatutako txapelketa eskuratu zuten Lesakan bertan, finalean Dunboa taldeari 9-2 irabaziz.

AITOR

LORA DENDA

TXIRULA
 Bittiria LESAKA
 Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza
 Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
 Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

XATURETXEA
FONDA
 Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

★ **KIXKUR** ★
ILEAPAINDEGIA
 Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

EROSLE
LESAKA
 Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena
zugandik
hurbilago
 Bittiria 67 - Tfnoa:637264

Igerilekua egiteko Gobernuaren dirulaguntza lortu da

Akoka aldean, lurra erosteko akordioa hartu du Udalak, ia 15 milioitan

PELLO APEZETXEA

Joanperizenea eta Lakatenea parean, Akokaldean egingen da igerilekua. Behin eta berriz eskatu ondotik, Gobernuak 25 milioitako dirulaguntza eskeini du, hiru urtetan zatika emanen duena: 5 milioi 92ko dirutik, 10 milioi 93kotik eta 94ekotik bertze 10. Laguntzak ekartzea bezain zaila izaten den lurra erostea ere badirudi burututa dagoela; jabeekin akordiora ailegatu eta berarekin erosketa paperak eginak ditu Udalak. Ia 15 milioi kostatzen da lurra, igerileku, inguruko egonleku eta sarrerarako, 4.500m² eremua denetara.



Argazkiak: PELLO

Nekez baina, karrikako auzoei bisitaldia egin zien Olentzerok aurten ere, bide guzian euri tantak lagun izanez, eta bukaeran erauntsia. Opariak uztea ez omen zaio ahantzi.

Larraburua Elkarteak antolatutako mus txapelketako irabazleak. Urteberri egunean hartu zituzten lehen eta bigarren sariak, eta parte hartu zuten bikote guzietan ere, parte hartzeagatik, sarituak izan ziren.

□ Aurten ere, **urte zahar arratsean afaltzera** bildu diren talde gehienak, kanpora jo dute. Bera aukeratu du aurten gazte-

riaren gehiengoak, Arantzan ere jende multxoak bildu izanagatik.

Antza denez, otordu atsegin eta asegarria egin

dutenean ondoan, hain konforme gelditu ez direnak ere badira. Errana den bezala, nork bete denen go-goa?

ARRATZUBI
ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - **LESAKA**

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko
toki egokia



Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - **LESAKA**

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat
pentsurik egokiena

Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - **LESAKA**

KOXXKONTA



Sagardotegia
Erretegia

Ezkontza,
bataio, bileratarako
leku egokia
(200 pertsona)

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESAKA**

KOSKILLA

OSTATUA

Larunbatetan
mus txapelketak
sari ederrekin

Zarandia 4 - **LESAKA**

IGANTZI

Kultur egunak giro ederrean bete ziren

Azken bolada honetan, lan egiteko gogo haundia dago herrian

OSKAR TXOPERENA

Aipatzekoak beraz, eguberri aste horretan izandako Kultur Egunak. Gazteek eta Biltokioek antolaketa ezin hobea eskeini bait ziguten eta jendearen aldetik ere erantzun ona izan baitzen. Saiorik aipagarriena abesbatzak, elizak, eta hitz batez erranda, herriak, Nieves Matxoteri eskeini zion omenaldia izandu zen, ez bakarrik elizan bildu zen jendetzarengatik, baizik eta ekintzak berez izan zuen antolaketa eta emozioarengatik. Abesbatzak urtean zehar landutako abes- tiekin hasi zen omenaldia. Lanak gehienetan emaitza onak ditu eta oraingoan ere



Abesbatzak urtean zehar landutako abestiak kantatu zituen

halaxe suertatu zen.

Ondotik Nievesek opariak hartu zituen jendearen txalo artean. Ahal izan zuen moduan pasatu zuen bitarte hau, hunkigarria izandu baitzen benetan. Ondotik afari bat izan bazen ere,

omenaldia dantzari taldeak eskeinitako aurrekuarekin bukatu zen.

Argazki zaharren erakusketaz ere aunitz mintzatu da jendea, hagitx polita izandu baitzen. Azkenik aipatu mendi-bizikleta

hitzaldia, sukaldaritza erakustaldia eta Bortzirietako bertso eskolako gazteen saioa. Guztiak Biltokin eta bakoitza bere mailan arras interesgarriak.

Zerbait mugitzen ari da

Behar bada aintzineko gaiarekin loturik doaie oraingoa ere, Eguberri hauetan gauzak prestatzen aritu den jendeaz ari baitgara. Kultur Egunak, Olentzero ezberdinak etabar prestatzeko bilera eta taldetan aspaldian ibili ez den jende mordoxka ibili da. Jakin dugunez gainera, dantza eta txistulari taldea, berriro antolatu nahizik dabilta. Ez da ez berri txarra.

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - **BERA**



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 **LESAKA**



ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo guztietako mobleak

ERAKUSKETAK:

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - **LESAKA**

Larunbat
arratsaldetan
zabalik

Iñurrategi anaiek hitzaldia emanen dute hilaren 15ean

Zahar Txokoak ekarriko ditu iaz Everest-a igo zuten bi gazteak

MIRARI eta MARTA

Zahar Txokoak antolatuta hilaren 15ean, arratsaldeko 7etan, Felix eta Alberto Iñurrategik hitzaldia emanen dute; pasa berri den urte honetan, Everestera igotako Arretxabaletako bi mendizaleek bertako kontu eta diapositibak ekarriko dituzte.

Ondoren (jubilatuentzat bakarrik) afaria izanen da; izena emateko bakoitzak bere ordezkariari erran diezaiola.

☐ **Hilaren 18an**, Arkupeak elkarteko besta eginen da Arantz mailan. 12etan, meza, gero aurtengo ekitaldien berri emanen zaie zaharrei eta bukatzeko Aterpen bazkaria eta

dantzaldia.

☐ **Aurreko ttipi-ttapan** aipatutako gimnasia klaseak urtarrilaren 13an hasi dira. Oroitu: asteazketan 11etatik 12etara.



Olentzero egunean herrian barrena buelta bat eman ondoren berendua izan zuten gaztetxoek

tatu nahi duenak dei diezaiola Marta edo Mirariri.

Olentzeroak

Zazpi Olentzero talde atera ziren, iaz baino bat guttiago. Bi olentzero bakarrik egin ziren eskola-koetatik kanpo. Pena da, Olentzero eguna eskolako haurrentzat bakarrik dela bait dirudi.

Biharamunean berriz, haur jokoak, olentzero erretzea eta lehiaketa. Haur jokoan antolatzaileak kexu ziren jaso zuten diru laguntza urriagatik.

☐ **Eskolako** haurrek urtero bezala beren antzerkia egin zuten. Eskolako baleta, jaiotzak, lehiaketa... Orokorrean jendearen gustokoa izan zen.

☐ **92 katastroko** orriak hartu ez dituenak Herriko Etxean ditu hartzeko.

☐ **Dantza talde** bat egiteko asmoa dago 15 urtetik gorakoentzat. Apun-

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ETXEGARAI
BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

 **BORTZIRI**
ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



**ERRO
BIDAIAK**

× HERRIAK
× MENDIAK
× TURISMOA
× TREKING eta
BIDAI ALTERNATIBOAK

BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2.015

ADUANAKALTEA, 5
= 943 - 615177
= 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRUN

SUNBILLA

Larogei haur bildu ziren Olentzero egunean

Bildutako diruarekin ikuskizunen bat ekarriko dute

IOSUNE eta IXABEL

Olentzero egunean 80 haur elkartu ziren trikitilari-riekin batera herriari buelta emateko. Botazio bat egin zen haurren artean: aukeran, bildutako dirua denen artean banatzea edo diruarekin buru haundiak erosi eta antzerkia edo pailazoak edo zerbait ekartzea zegoen. Bigarren aukera izan zuten neska-mutiko guziek gustokoa.

Ohitura zaharra

Eguberri egunean 15



Artxiboa

gazte elkartu ziren Herriko Ostatuan Modesto eta Onofre akordeolariekin,

herriari buelta eman zioten, afaldu eta gabaz baserri guztiak ibili zituzten.

Aspaldikoa da ohitura hau, zaharrenek ere betidanik ospatu dela erraten baitute. Baserriz baserri jasotako dirua biharamonean bazkaria egiteko izaten dute eta ondotik musika.

☐ **Traktore** istripuz herritar bat hil zela eta buila haundia ateri da azken asteotan, baina hori gezurra dela erran behar da. Ez dakigu nondik ateratzen diren berri horiek baina ez da lehenbiziko aldia hau gertatzen dena.

☐ **Iñauterietarako** prestatzen ari da dagoeneko jendea. Urtarrilaren azken aste bukaeran izaten dira Sunbillako iñauteriak.



AMEZTIA
Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - DONEZTEBE

ZONALDE HONETAKO 5 ETXETIK 4tan
ttipi-ttapa HARTZEN DUTE
ZURE KLIENTEEK ERE ttipi-ttapa HARTZEN DUTE

MENDI HOTELA



DONAMARIATIKO BEHTA

Jatetxea

Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

12

Ostatua

Amezitia 12, Tfnoa: 450153, DONEZTEBE

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14



BEINTZA LABAIEN

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE

Etkez etxe zerriak hiltzen

Florentinori lana pilatzen zaio sasoi honetan

PELLO ETXEGIA

Negu aldera hurbiltzen garenean, denok dakigun bezala, herri hauetan zerriak hiltzen hasten gara, urte osoan harategira joan gabe zer jan izateko. Artze auzoan Florentino Mariñelarenak betetzen du lan hori. Negu osoan etxez etxe ibiltzen zaigu zerriak hiltzen. Lan honetaz aparte edozein ezbehar sortzen bada, behia erditzen ari dela edo... Florentino izaten dugu auzoko albaiteko.

Donamaria telebistan

Azken bolada honetan maiz agertzen zaigu Donamaria telebistan. Duela gutti Donamariako monjak nola bizi diren ikusteko aukera izan genuen. Orain berriz, hilbeltzaren 11an hasi eta hiru igandez Donamariako meza grabatzen etorri behar omen du ETBk. Dagoeneko apaizak elizara joaten direnei meza ondotik zenbait kanta entsaiatzeko eskatu die.



Negu osoan etxez etxe ibiltzen da Florentino zerriak hiltzen

BEINTZA-LABAIEN

Lurren antolatze prozesua bilera batekin hasi da

PATXI OTXANDORENA

Lurren antolatzea edo "Concentración parcelaria" delakoa genuen abenduaren 21ean Herriko Etxean egin zen bileraren gaia. Herriko 42 lagun bildu ziren Nafar Gobernuko eta UAGNko ordezkariekin. Azken hauek orain arte antolatze honek izan dituen esperientziak azaldu zituzten eta hemengo kasuan 15-20ren bat lur

puska izan ordez 3-5 puska bateratuak geldituko ziren. Hau herriko jende guziak egiteko izanen litzateke.

Honen berri jakin ondoren hurrengo pausua berriz biltzea da, eta bozketa bat eginen da ea zeintzuk ibili behar duten etxez etxe sinadurak biltzen. Familien erdiak, hau da %50a konforme bada edo bertalde, lur kopuru osoa hartuta %70a dutenek baietz badiote



Lurren antolatze hau eginez gero egin beharreko bideak Nafarroako gobernuak eginen lituzke eta alorrak itxitzearen %25a berak ordainduko luke eta eskriturak behin betikoz garbituko liratekeen

aintzinerara segituko da. In-guru honetan, Beintza-La-

baien lehen herria da zera honetan hasi dena.

ASKIN OSTATUA

Bokadillo eta Plater konbinatuak

Elizagibela, Tfnoa: 45 00 52 - DONEZTEBE

MariCruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

DONEZTEBE

180 milioi pezetatako aurrekontua Hirurteko Plangintzan

Aranzokorako bidea, urbanizazioak eta ur depositoa egitea daude lehentasunen artean

TXEMA ALDABE

180 milioi pezetatako plangintza aurkeztu dio Udalak Nafarroako Gobernari Hirurteko Plangintzaren barnean, nahiz eta gaur egun dauden diru murrizketekin hau dena aintzineratzea ia ezinezkoa izan. Lehentasuna honako lanei eman dio Udalak: Aranzokorako bidea, Renault aldea, Amezti pasabidea, Leku-Eder eta eskola aldea urbanizatzea, ur depositoa egitea, Elizagibelatik herrigunera oinezkoentzako zubia egitea eta Doneztebetik Elgorriaga bitarte espaloiak edo azerak egitea.

Eraberean, Osasun Zentroko urbanizazioaren alde borrokatzen ari da Udala, eta lehenbaitlehen urbanizatzen ez bada Osasun zentroaren anpliaziorako lur sailen zesia da duela sinatuko adierazi zaio



Liburutegia martxan jarriko da aurtan

ARTXIBOA

Nafarroako Gobernari, ultimatium gisara.

4.225 zenbakiari Errekaren zarea

4.225 zenbakiari egokitu zaio Erreka kirol elkarteak zozketatzen zuen Eguberrietako zarea ederra. Oraindik ez omen da agertu zenbaki sariduna, baina jakina da Doneztebeko ferrietan Iñaki Lareok saldu zuela. Beraz, boletoak dituzuenak ongi begiratu,

bertzenaz, hilbeltzaren 23rako agertzen ez bada, berriz zozketatuko baita.

Liburutegia moldatzen

«Construcciones Intzakardi» enpresari eman zaio Kultur Etxearen (liburutegia) moldatze lana, 1.265.000 pezetan truk, % 60a «Principe de Viana»k ordainduz. Liburutegiaren arduradun postua betetzeko ere deialdia zabaldu da.

ttipi-flash

□ **1.150.000** pezetako dirulaguntza eman dio Udalak Arkupeak jubilatuen elkarteari, Herriko Etxe zaharreko bigarren pisuan egiten ari diren moldaketarako. Aurrekontu osoa 2.300.000koa da, doblea, beraz.

□ **Miren Martikorena** eta **Estibalitz Gastesik** osatutako bikoteak Euskal Herriko Haur kanta txapelketarako sailkatu ziren.

□ **Seguritate** Sozialaren inguruko informazioa emateko bulegoa zabalduko da Herriko Etxe zaharreko lehen pisuan.

□ **65.000** pezeta emanen dizkio Udalak Pascasio Gastesi kanposantuko arduradunari.

□ **Alkatea** izanen da udal ordezkari titularra «San Miguel» eskola publikoan eta Jose Ignacio Zabala ordezkaria.

Beatriz
ILEAPAINDEGIA
 San Miguel, 450922 - DONEZTEBE

- ❖ Ileapaindegirako ordua eskatu
- ❖ Solarium-a
- ❖ kalitateko perfumeak
- ❖ Bitxitegi fina

zintitatearen **MERKEALDIAK**

ARROPAK
 San Migel auzoa 27,
 45 08 83 - DONEZTEBE

SANTAMARIA
Jatetxea
 Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
 Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

BELARRA Kafetegia
Plater konbinatuak
 Amezti 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE

Plaza aldeak txukuntzeko bertze pauso bat emanen da

‘Azpiroz eta Saralegi’ enpresak eginen ditu lanak

IBAN ISASI

Nafarroako Gobernua-ren Hezkuntza Departamentuak ematen duen dirulaguntza aprobetxatuz, bi milioi terdi inguru inbertituko dira plaza inguruan zenbait lan egiteko, eta horien artean, jarlekuak eta harmailak edo gradak antolatzea. Lan hauek harri losatxo ezaliko dira eta obrak hasiko dira harriak prestatu bezain abudo.

□ **M^a Juana** Etxepetleku arduratuko da udal

instalakuntzen garbiketaz aurreratzean ere, berea izan baita horretarako aurkeztu zen eskeintza bakarra. Horren arabera, hilabetean 20.000 pzta. ordainduko zaio.

□ **Giro** ezin hobean ospatu ziren aurtien ere Kultur Egunak. Ekitaldi interesgarrien artean, honako hauek aipatuko ditugu: argazki zaharren erakusketa egunero egon da ikusgai; gaztain jatea eta sagardo dastatzea; haurren



ARTXIBOA

artearen egindako pelikula; ‘Piztiak’ eta ‘Bihotzerre’ taldeen kontzertuak, baita

Anje Duhalderena; Mus txapelketa eta bertze hainbat gauza.

ZUBIETA

Kultur antolakuntza bultzatu nahi du Udalak aurtengoa

JUAINAS

Beste urte bat joan zaigu. Heldu dena lainoz bete omen dator, diotenez; europeagoak izango gara; hauteskunde estatala jasan beharko dugu; pista printzipalak eginak izanen dira; lana azkeneko urtetan bezala kolonkan egonen da. Doneztebe-Leitza errepidea konpontzen hasiko omen dira. Inñotik ospatuko ditugu. Amargineko festak galantak izanen dira. Joaldunak peninsulan zehar arituko dira eta labradorea beti apendiz. Normala, guztiz normala izanen omen da heldu den urtea.

Beste zerbait berria bi-



ARTXIBOA

deratu nahian, ludoteka, gazteen elkarteak, euskal kultura sustartzeko lagun elkarteak, herritar elkarteak, kulturaleko edo beste edozein izeneko antolakuntza pro-

posatzen da Udaletik: 1.- Udalak dituen posibilitate materialak erabiltzeko (bideo, TB, liburu, komikiak, jokoak, lokala eta subentzioak). Gehi, euskara zer-

bitzuek dituen bideo zintak eta gure kultura bulkatzeko gogoak.

2.- Hainbat herritar gustoko duen indar eta interesa gauzatzeko posibilitateari atea irekitzeko: Udalak laguntza eskeiniko luke, ez zuzendaritza, plangintza onartuz gero.

Ideiak behar dira! Ideiak eta gogoak: txapelketak, kirolak, mendi irteerak, diapositiba paseak, hitzaldiak, bideo emanaldiak... nahi dena!

Zer gauzatzen den ikusteko bileratxo bat egingo da hilaren 16an Etxekenean, arratseko 9etan.

GOIZUETA


‘Gorgori’ baserri errearen aldeko bertso saioa 16an

X. Lizaso, J. Sarasua, M. Arozena, Murua, Telleria eta Silveirarekin

ESTEBAN AROZENA

Duela aste batzuk erre zen Gorgori baserriaren aldeko ekintzak ugarituko dira ondorengo egun hauetan eta horren adierazgarririk onena Udalak antolatu duen bertso jaialdi bikaina aipatuko dugu, hain zuzen larunbatean, hilbeltzak 16, gaueko 11 etatik aurrera zine aretoan burutuko dena.

Oiartzabal gai-jartzailearen agindupean Xebastian Lizaso, Jon Sarasua, Manolo Arozena, Iñaki Murua, Millan Telleria eta Xabier Silveira bertsolari ezagunak izango dira jaialdiaren protagonistak. Bertsolariak hasi



‘Gorgori’ baserria kiskalita gelditu zen sutearen ondorioz Esteban

aurretik herriko trikitilarien taldeak emanaldi bat eskeinitiko du.

Baina hasieran esan dugun bezela, Gorgoriren alde

dirua biltzeko helburuaz antolatuko dira ikuskizun gehiago. Adibidez, bere kuadroko lau pilotari onenekin partidu bat herrian jo-

katzeko hitza eman omen du dagoeneko Asegarce pilota enpresa berriak.

Zalantzarik gabe, Gorgoriko familiari gertatu zaion ezbehar honek alkartasun mugimendu handia sortu du herrian. Besteak beste, 100.000 pezetarekin Nafarroako Aurrezki Kutzan kontua ireki du Udalak eta nahi duenak bere aportazioa bertan egin dezake. Etxez etxe ere laguntza eske ibiliak dira, eta inguruko herrietara ere agertzeko asmoa ba omen dute.

□ **8. mailako** ikasleen saskiaren zozketan 1.936 zenbakia suertatu da saritua.

ARESO

Olentzeroak opari ugari banatu zituen

JUANA MARI SAIZAR

Ohiturari jarraituz, Olentzeroa etorri zen Aresoko Eskolara umeak oparirikin alaitzera. Bidera ateri ziren guziak eta mendi aldean topo egin zuten. Eskolaraino lagundu eta bertan banatu zituen opariak.

Bilboko Jolas Parkera

Abenduaren 28an, 50 ume eta guraso Bilboko Jolas Parkera joan ziren egun ederra pasatzera. Bidaiaren antolaketa Guraso Elkarteak proposatu zuen



Olentzeroaren kantarekin despeditu ziren hurrengo urterarte

eta Eskolako fondoan diru dexente zegoenez, dohainik ateri zen. Fondoa gura-

soen kuota eta herriko festetako errifan bildutakoarekin osatua zegoen.

Telebistan sarituak

Abenduaren 23an TVE-ko ‘Hola Rafaela’ saioan Rosa M^a Artolak 1.800.000 pezeta irabazi zituen konkurtsoan. Halere honako hau bigarren aldia da Aresoar batek telebista konkurtsoetan dirua irabazten duena. ‘ETB Kantxan’ duela hilabete batzuk M^a Carmen Garmendiak 150.000 pzta. irabazi zuen. Zorionak bioi.

Okerrak zuzentzen

Uraldeek sortutako kalteen irtenbidea 2 milioitakoa izanen da eta ez 8 milioitakoa aurreko ttipi-ttapan jarri genuen bezala.

Ur hornidura, saneamendu eta zoladura obren bigarren fasearen subasta egina da

JOSEBA AZPIROZ

Abenduaren 30eko batzarrean, ur hornidura, saneamendu eta zoladura obren subasta «Construcciones Azpiroz y Saralegi» enpresari ematea erabaki zen Nafarroako Gobernutik espero den dirulaguntza jasotzen bada. Obra hauek Elgoien, Huarte Gotzaia, Manuel Lasarte eta Elbarren auzoetan egingo dira.

«Asketa Txiki» abesbatzaren kantaldia

Abenduaren 20an «Asketa Txiki» abesbatzak kantaldia eskeini zuen Udaletxeko aretoan. Ondoren, euskal kantu txapelketan irabazi duten kopa azaldu eta saritua izan zen abestia kantatu zuten. Denetara 70 umetik gora ziren abestu zutenak. Saioaren bukaeran egin zen bideoaren zozketan Amaia Sagastibeltza izan zen saritua.

Azken aldi honetan fin dabil «Asketa» abesbatza bere bi taldeekin: 31 gazte alde batetik eta 70 ume hauek bestetik. Badagoela afizioa Leitzaan...



Fin dabil azken aldi honetan «Asketa» abesbatza

JOSEBA

Iñauteriak, hilaren 24, 25 eta 26an

J. A.

Iñauteriak hilbeltzaren 24, 25 eta 26an ospatuko dira, eta ez nolana hikoak gainera. Hau idazterakoan programa zehazteko bada ere, badira hainbat nahi.

Larunbatean, Jarraik antolatuta kontzerturen bat izango da Dorrean gaueko 12etan. Igande goizetik, Leitzako pilota eskolakoak jokatzeko ari diren txapelketaren finalak izango dira, lau kategoriatan. Sariak, Beloki eta Galartzaren eskutik jasoko dituzte. Igandean, 7,30etan bertso jaialdi «sor-



Artiboa

presa» antolatu du IKAK Egaña, Lizaso, Sarasua, Euzkitze, Peñagarikano, Telleria eta Murua bertsola-

riekin. Gauean, herri afaria ere izanen da. Egunero gauez, Naygi eta Los Incansables txaranga arituko dira.

SAGASTI
Jatetxea

Bokadilo goxoak eta paregabeko bazkariak

Tfnoa: 610637 - LEITZA

TXOKO TABERNA

Pintxoak eta kaxulak

Tfnoa: 510077 - LEITZA

Lorea eta Idoria

ileapaindegia

Tfnoa: 610907 - LEITZA

BAZTAN

Erregeak maingu ailegatu dira

Esne kuotak eta horrekin batera produkzio murrizketa ekarri dute

JOSEBA IGARABIDE

Erregeak ailegatu dira Baztanera, bainan maingu. Nekazariak esne kuotak hartu dituzte eta horrekin batera produkzio murrizketak. Nekazari aunitz urduri eta kexati ageri dira egunotan. Notifikazio ailegatu eta 15 egun dituzte Iruñako SENPAN erreklamazioak egiteko.

Erregetako kabalगतak izan dira eta baita kultur ekitaldi ugari Baztango herrietan. Iruritan prestatuakoa errekestista haundia izan dute eta baita Baztandarren Biltzarrak botatuko pelikulek. Elkarte honek antolatutako zanko eta txalaparta ikastaroak jende dexente bildu du. Pitxi Egileor mendizaleak Everest igotzerakoan izandako gorabeheran berri eman zuen bideoaren laguntzaz.

Kultur ekintza ugari, beraz, eta jendearen parte hartzea ere, arras polita.

□ **Gillermo Santos** eta **Jose Luis Altzugarai** Baztango jokalariek jaso zuten iazko denboraldian erregulartasunari eta goleatzaile onenari emandako sariak.



Santosek jaso zuen jokalaria erregularrenari Mendi ostatuak emandako saria eta Altzugaraiak goleatzaileari Olari jatetxeak emandakoa

ONDIKOL

ttipi-flash

- **Lander Santamaria** izendatu dute definitiboki, Baztan Futbol elkarte-ko lehendakari.
- **Iñauteriak** hasi dira Baztanen, Orabidea inguruan. Zenbait ekintza berezi egiten dira hainbat herritan, oilar dantza edo Orakunde eguna, bertzeak bertze. Aintzinetik puske biltzea egiten dute eskoletako neska-mutikoak eta azkenik oilar - jokoak.

San Anton eguna, besta eguna Elizondon

Nekazariak berriz ere elkarrengana biltzeko probextuko dute

San Anton eguneko ekitaldirik aipagarriena, «Misericordia» zahar etxeak antolatzen duen errifa izaten da. Lehen saria, behi bat da, bigarrena zerria, hirugarrena bi bildots eta laugarrena urdai-azpikoa. Goizetik udaltzain batek herrian zehar pasiatzen du behia jendeak ikus dezan eta Herriko Etxeko balkoian egiten da zozketa, 12 t'erdietako mezaren ondoren.

Zahar Etxean bazkari



«Misericordia» zahar etxeak antolatzen du San Antongo errifa

berezia izanen dute eta nekazari batzuk ere probex-

tuko dute jatetxeetan bazkaltzeko.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

MERKEALDIAK
arropa eta teletan

KASINO OSTATUA

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO

Alkate berriek hartu dute agintea

PABLO MENDIBURU

Zigan, Juan Magirena da alkate berria, emandako 94 botuetatik 91 beretzat izan baitziren. Bertze hiruak botu txuriak izan ziren.

Anitzen hiru pertsonak hartu zituzten botoak; Jaime Iantzik 18 botu lortu zituen, orain arte alkate zen Martin Gamiok 14 eta Patxi Alzuartek 4. Berroetan, berriz, 59 botu eman ziren eta horietatik 44 Ana Gartxitorenarentzat izan zirenez Ana da alkatesa berria. Aipatu behar, Baztanen alkatetza-

rako hautatua izan den emakume bakarra izan dela. Almandotzen hautagai bakarra aurkeztu zen. Emaizak hauek izan ziren: Rafael Agerrek 75 botu, Luis Mari Mitxeok 2 eta Begoña Sanzberrok 1. Hauetaz gain, lau txuri izan ziren. Almandozko zerrendetan arazoak izan ziren, batzu agertzen ez zirelako eta beste batzu bi aldiz idatzirik agertzen baitziren.

Partaidetza aldetik, aipatu behar Anitzen % 66ak eman zuela botua, Berro-



ARTXIBOA

tan berriz, % 50ak eta Zigan eta Almandozen % 46ak.

Errege egunean egin zen alkate aldaketa, orain arte alkate izan direnak, herriko kontuak azaldu ondoren.

□ **Basaburua-Baztan**

kirol elkarteak sortu zen urtarilaren 3an.

□ **Anizko** emakumezkoen pala txapelketari hasiera eman behar zaio.

□ **Zigan** berenduleku polita egin da eliza ondoan.

URDAZUBI

Atsulai dantza taldeak ikuskizuna eman zuen Kanbon

Eskolako haurrak eta gazteek, bertzalde, bestaz akitu zuten urtea

ALIZIA OLAIZOLA

Abenduaren 20an Kanbon Atsulai dantza taldeak ikuskizun bat eskeini zuen. Eskualdun dantzak, jazz kantuak etabar izan ziren, bi ordu iraunez eta urririk ikusterat joan zirentzat.

Besta

Eguberrietan ohitura den bezala, eskolako haurrek abenduaren 22an ospakizun xarmanta antolatu zuten eskoletan; Olenzera, antzerkia, dantzak eta Gabon kantak. Besta bukatzeko Eguberrietako zarearen zozketa egin zen.

Lezeak erosteko prestamoa

Lezeak 36 milioi pezetatan erosiko ditu Udalak Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, eta horretarako, 22 milioi pezetatiko mailegu edo prestamoa eskatu dio Banco Exterior-i.

Gazteen

Urte Zahar afaria

Zenbait gazte eta ezkonduk Indiano baitan egin zuten urte zaharreko afaria. Ondotik dantzaldia izan zuten Modestorekin. Gero gazteak, goizaldera Baztanen gosaldia zuten,



ARTXIBOA

36 milioi pezetatan erosiko ditu Udalak lezeak eta inguruko lur sailak

giro ederrean segituz eguna, hasmenta ona emateko

urte berriari.

ZUGARRAMURDI

Gazte talde bat joana da oporretan Ecuadorrerat

Hilaren 3an ateri eta hilabete bat baino gehiago pasatuko dute kanpoan

KORO eta MARGARI

Azkeneko negu hauetan bezala gazte talde bat gan zaigu oporretara eta aurten aukeratutako lekua Ecuador izan da.

Getaritik Filip, Saratik Aline M^a Helen eta Sandrin eta Zugarramurditik Axun, Mikel, Helena, Ebaristo eta Joxe. Urtarrilaren 3an (bestondoa oraindik ongi pasatu gabe) abiatu ziren hilabete bat pasa iraunen duen bidai huntara.

Hemen gelditzen garenak bidai on bat pasa dezatela desiratzen diegu eta opariak ekartzea ez ahanzteko.



Giro ederra izan zen Zugarramurdirin Urte Zahar gauean

ARTXIBOA

Eguberriak giro ederrean pasatu ginuen

Eguberriko gaua orain arte senide artean pasatzeko gaua balin bazen, iduri du

ohitura hau (gure herrian batez ere) aldatzen ari dela. Oilar-meza finitu ondoren ostatuak bete ziren eta goizeko seiak arte edekiak kontu zituzten ikaragarritzko animazioan.

Urtexahar gauean berriz, herrian gelditu zirenak nolazpaite antolatu zituzten afariak etxeetan baina gero ere ostatu pare bat edeki ziren eta azkenean giro ederrean gan zen gaua.

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

ARROPA DENDA



CERVANTES HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - = 580313
ELIZONDO



ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO Erreportai on bat

ELIZONDO = 580491
DONEZTEBE = 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 00

Esquisarri

jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

Adinekoek krakada izan zuten San Inazio lepoan

Ehun bat lagun elgarretaratu ziren Pullman ostatuan

MIXEL eta JACQUELINE

Hirugarren aldikotz San Inazio lepoan dagoen Pullman ostatuan, Borda jaun andereek eskaini dute krakada bikain bat adineko jendeari abenduaren 16ean eta 100 bat partaide elgarretaratu dira. Ezkurra izeneko akordeoi joilari urruñarra hor zuten eta jakin dugunaren arabera giro alai batean iragan da elgarretaratzeko. Gainera erran dezakegu heldu den urterako hitz ordua finkatua dela. Eskerrik beroenak berriz ere sarataren izenean Marie José eta Pierre Bordari.

Herriko Etxearen oparia

Abenduaren 23an He-



Gehiagotan ere elgarretarutzen dire adinekoek

erriko Etxeak urte bukaeraren karietarat eskaini du aperitifa bat elkarte arduradunei, herriko langileei, erakasleei, hautetsiei... Auzapezak denak eskertu eta urte on bat desiratu ondian, xanpaina eta janari

xehe frango jastatu dituzte.

Ikastola

Seaskak (Iparraldeko ikastolen federakuntza) 93-94eko ikasturtea jadanik apailatzen ari da. Karia hortarat Sarako ikastola bide berari lotzen da: beraz heldu

den sartzerako ikastolak nor interesatzen duen jakitea da bere xederik haundiena. Ikastolarekin harremanetan sartu nahi duenak ikusten ahal ditu arduradunak ikastolan bertan edo bertze helbide hauetan:

- Sarako ikastola / Omordia-Sara (59542748).
- Seaska / 8, Thiers karrika / 64110 Baiona (59591053).
- Mixel Gerendiain / Herriko Etxeko edantegia - Sara (59542519).

☐ Olhain elkarteak jakin arazten du partaide eta adiskideei bere bilkura nagusia urtarrilaren 30ean arratseko 7etan iraganen dela Gazteen Etxean.

ARLA

ARDOTEGIA

Ardo botilatua
eta botilatu gabea

Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66
ELIZONDO

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

5.300 HARPIDEDUN
18.500 IRAKURLE

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barranean edo ate ondoan eta buruko mine maten baduzue hek ikusteak, abiso emanazue Iurretako telefono honara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izzain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza



Ezkontzetako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
ORDU BATEZ
ERREBELATUAK
ditugu

EZKONTZAK

Pedro Mari Oskoz Ekioiz eta **M^a Josefa Bera Jauregi**, Almandozkoak, azaroaren 21ean.

Luis Fernando Etxepare Berlanga eta **Carmen Larralde Mujika**, Lesakakoak, abenduaren 19an.

Felix Jonolan Val eta **Ana Zalba Almandoz**, Pasaia eta Iruñakoa, abenduaren 5ean.

Lourdes Goñi Baleztena eta **Hunberto de Rueda Leiza**, Oitz eta Arantzakoa, azaroaren 14ean.

Henri Errandonea eta **Caroline Larralde**, Sarakoak, abenduaren 18an.

Francisco Claudio Cortes eta **Aranzazu Azpiroz Saralegi**, Leitzakoak, urriaren 17an.

Jose Joaquin Sestorain Larrea eta **Maria Josefa Otegi Etxebes-te**, Leitza eta Errenteriakoa, azaroaren 28an.

JAIOTZAK

Javier Garmendia Belaskoain, Elizondokoa, azaroaren 24ean.

Aimar Serrano Arano, Elizondokoa, azaroaren 25ean.

Xabier Berho Susaño, Oronoz-Mugairikoa, azaroaren 29an.

Jone Iriarte Elizagoien, Elizondokoa, abenduaren 8an.

Gorka Alzuarte Arregi, Almandozkoa, azaroaren 28an.

Maria Eskudero Apezetxea, Goizuetan, azaroaren 30ean.

Jon Mutuberria Alkorta, Goizuetan, abenduaren 26an.

Miriam Martin Goñi, Arizkunen, abenduaren 21ean.

Fernando Mindegia San Martin, Donezteben, abenduaren 17an.

Bēnat Berhau, Saran, abenduaren 20an.

Amaia Saint Martin, Saran, abenduaren 14ean.

Oihan Gomez, Saran, abenduaren 28an.

Jasone Sagastibeltza Berakoetxea, Leitzan, azaroaren 19an.

Olatz Aldunzin Etxetxikia, Leitzan, azaroaren 23an.

Yenia Garcia Sagastibeltza, Leitzan, abenduaren 21ean.

Unai Udaeta Zubieta, Beran, urtarrilaren 1ean.

HERIOTZAK

Rita Peon Carrera, Elizondon, azaroaren 29an, 88 urte.

Antonia Ormazabal Irastorza, Lekarozen, abenduaren 9an, 83 urte.

Alfonso Cebrian Arribas, Elizondon, abenduaren 12an, 49 urte.

Timoteo Otxandorena Mortaleña, Erratzun, abenduaren 15ean, 93 urte.

Pedro Jose Belaunzaran Rezola, Areson, abenduaren 21ean, 88 urte.

Juan Etxegarai Ubiria, Lesakan, abenduaren 27an, 87 urte.

Jose del Rio Apeztegia, Oronoz-Mugairin, abenduaren 19an, 82 urte.

Manuel Barrenetxe Goienetxe, Erratzun, abenduaren 27an, 84 urte.

Victoriana Aizpuru Etxegoien, Elizondon, abenduaren 29an, 79 urte.

M^a Pilar Gorostiaga Eskala, Ezkurran, abenduaren 26an, 85 urte.

Francisco Telletxea Mitxeltorena, Donezteben, urtarrilaren 5ean, 87 urte.

Alphonse Lasaga, Saran, urtarrilaren 4ean, 86 urte.

Vicente Azpilicueta Izcue, Beran, abenduaren 23an, 84 urte.

Fco. Soria Ariztegi, Beran, abenduaren 27an, 61 urte.

J. M. ANDUEZA IRIARTE
Instalazio elektrikoak

☛ *Sua itzaltzeko tresna guztiak*

- Mangerak
- Extintoreak
- Ateak: Rf-30, Rf-60, Rf-90. etab...

☛ **Alarmak: Suarenak, lapurretarenak...**

Askain Karrika 12 = 630854 - **BERA**

Beatriz Apaindegia

Espezializatutako zentru akreditatua

Larruazalaren garbiketa, aurpegi eta gorputz tratamenduak, depilazioak, masaiak, sauna eta solarium.

Zatoz eta "Importancia de tu imagen" liburua oparituko dizugu

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO

Baztanen, Herrietako alkate-juradoen hauteskundeak sortu dute zer erranik

Patehartzea %24,27koa eta orohar, kritika gogorrek hauteskundeetako normatibaren kontra

Baztango erakunde edo instituzio politikoek badute inguru honetako bertze herrietan ematen ez den berezitasunik.

Antolaketa politiko horren arabera, historikoki modernoagoa den udalbatzaren egitura arruntarekin batera, aisa lehenagotik heldu den egituraketa politikoaren zenbait aztarna eta seinale oraindik bizirik dira. 'Junta General' deiturikoa dugu herrietako bat, eta bere baitan herrietako alkate-juradoak, Junteroak eta udalbatzako kontzejalak biltzen ditu.

Abenduaren 20an hurrengo bi urteotan, 1994ko abenduaren 18a bitarte hain zuzen iraunen duen legistaturarako herrietako alkateak aukeratu ziren, eta zerbait azpimarratzekotan, inoiz ezagutu den partehartzerik bajuena gertatu izana.



Ordenantza berriak polemika sortu du berriro ere

Argazkiak: ONDICOL

Azkeneko hauteskundeotan berriro ere piztu egin da 1988an indarrean sartu zen Ordenantza berrien inguruko polemika. Honako hau, beraz, normatiba berriaren arabera egiten diren bigarren hauteskundeak dira, eta azkeneko bi urteotan alkate izan diren zenbaitzuren ustez, "lehenago normatiba zaharkitua bazegoen ere, oraingoa baino aisa hobea zen".

Izan ere, aukeraketa sistema berriak sortu dituen hutsune eta irregulartasunak dira kritikarik gogorrenak biltzen dituen ataletatik bat. Normatiba berriaren arabera, agintaldia bukatzen ari den alkate bera da mahai elektoralaren buru, kontutan hartu gabe, berriro ere alkaterako aurkezten den alkatearen kasuan, bera izan den delako aldiberean alkategai eta hauteskunde mahai horretako arduradun nagusia.

Bitxikeriak

Abenduaren 26an ospatutako Batzarre Nagusia edo Junta Generala 15 alkateetatik 13ren 'izendapenaz jabetuzat' hartu zuen bere burua. Horren arabera, beraz, Jon Francesena Elizondoko hautagai bakarra eta Juan Meoki Iruritako alkategairik botatuenaren izendapena onartu aintzinetik, Nafarroako Gobernuari informe juridikoa eskatzea



Elizondon hautagai bakarra zenez, botaziorik ez egitea erabaki zuen Esarte alkate-ohiak

deliberatu zuen.

Jon Francesenaren kasuan, Batzarre Nagusiaren ustez irregularitasuna hautagai bakarra izanik automatikoki izendatzean eta hauteskunde mahaia behar baino lehenago ixtean dago.

Juan Meokiren kasuan aldiz, epaiketa administrati- bo batean jasotako zigorrak dudak sortzen ditu Juntaren ustez, karguaz jabetzeko.

Junta Generalaren lehendakaria eta Baztango alkateak den Patxi Oiartzabalek egin zuen aipaturiko proposamena eta 35 batzar- kideetatik 27k onartu egin zuten.

Halere, tradizioak agin- tzen duen bezala Errege Egunean 15 alkateak (Jon Francesena eta Juan Meoki barne) beren karguaz jabetu ziren inolako problemarik gabe.

Testua: JM IRIGOIEN
Argazkiak: JM ONDIKOL

EMAITZAK HERRIZ HERRI

Herria	Zentsoa	Partehartzea	Hautagaiak	Botuak
ALMANDOZ	177	46,32	Rafael Agerre Luis M ^a Mitxeo	75 2
AMAIUR	209	34,44	Luis M ^a Goienetxe	72
ANITZ	53	66,03	Jaime Yanci Martin Gamio Patxi Altzuarte	18 14 4
ARIZKUN	539	17,99	Bautista Soule	95
ARRAIOZ	220	53,63	Jose A. Bergara	108
AZPILKUETA	185	8,64	J.M. Mariezkurrena	16
BERROETA	117	50,42	Ana Gartxitorena	44
ELIZONDO	2513		Jon Francesena (*)	
ELBETEA	182	41,75	Juan M ^a Ameztoy Ramon Irisarri	47 15
ERRATZU	439	46,92	Jose Bengoetxea Angel Erregerena	111 87
GARTZAIN	204	43,13	Juan Arretxea M ^a Carmen Agerre	70 2
IRURITA	655	61,06	Juan Meoki M ^a Isabel San Jose	220 178
LEKAROZ	280	26,78	Josetxo Larretxea	75
ORONOZ	358	33,24	Florentino Goñi	115
ZIGA	201	46,76	Juan Magirena	91
DENETARA	6332	24,27		

(*) Hautagai bakarra izanik, ez zen botaziorik egin



Junta Generalak informe juridikoa eskatzea deliberatu zuen Elizondo eta Irurritako kasuetan

«Junta Generalaren bitartez alkate-juradoen figura sendotu beharra dago»

Garai bateko Baztango Junta Generala eta herrietako alkateen konpetentziak -taillak izanik- murriztu zirenetik, herriko alkate izatea 'florero' antzeko zerbairetan bihurtu da, herriko mutil gisara, ahalmen eta errekurso gutirekin.

Baztango afera larrietan, Udalak du orain agintea eta ahalbidadie, aurrekontuak adibidez bere ardura dira.

Nere ustez, herrietako alkateak baliabiderik gabe uzteak badu arriskurik, herri bakoitzak bizia, bixitasuna eta norjabetasuna galitzen baitu. Batetik, beharrei aurre egiteko errekurso ekonomikoen falta, alkate eta batzarreen aginte eza eta herriak Elizondoko auzoak

bihurtzeko arriskua, eta bertzetik, batek aunitz eta bertzeek guti. Elizondok, kapital gisa, zerbitzuez gain jendea bertara bizitzera joateko joera bereganatzen du, horrela, bizilagun kopuruaz igo daiteke, zerbitzuetan eta gainerako prestakuntzetan hobetu -denbora librea, kultura, kirola...- gainerako herriak tikitzen ari diren bitartean.

Udala edo nolabaiteko administrazio duten herriek, nahiz guti, beti bizi gehiago izan dezakete, herritarrek arduratu behar baitute herriaren etorkizunaz, administrazioa eta antolakuntza zuzenean eramanez -egia da horrela kargak ere haundia- goak direla-.

Herriko Alkate eta Batzarrearen konpetentzia ezak utzikeria sor dezake eta horren ondorioz, bailara udal-administrazioaren esku uzten da, inertzia kaltegarri batetan sartuz.

Baztango herri guztien bizia zaindu beharra dagoela denok ados daude. Nola? Hortxe dago kokka! Zentralizazio eta efikazia litzateke bide bat edo... herrien partehartze haundiagoa, Junta Generalaren bitartez alkate-juradoen figura sendotuz. Azkeneko erantzunaren alde nago ni, nahiz eta zaila izan, bertzenaz herriak pixkanaka auzotan bihurtuko dira eta beraien bizitza apaltzen joanen da gauza guzietan.



Joseba IGARABIDE
XORROXIN Irratiko lankidea

Beti Gazte - Gure Txokoa: Zortzi urte beranduago Bortzirietako derbya

Igande honetan jokatuko dute Lesakako Kristo-Enea futbol zelaian

1983-84 denboraldian Beti Gazte taldeak Gipuzkoako Erregionaleko bigarren mailatik lehenengora igo zenez geroztik ez dute jokatu lesakarrekin eta Berako Gure Txokoei berzte partidu ofizialik.

Baina zortzi urteren ondoren, hilaren 17an arratsaldeko 4etan, betiko Bortzirietako derbya Lesakako Kristo-Enea futbol zelaian errepikatuko da. Dударik gabe, ikusmin berezia sortu du futbol partidu honek eta Lesakan «Clubaren eguna» ere izendatu dute.

Orain arte, aurtengo denboraldian ez dute gauza haundirik lortu bi taldeek. Gure Txokoa hobekixiago dabil, erdikaldeko postuetan, baina Beti Gazte, lerro hauek idazterako orduan bortz negatiboren jabe da eta azken postuetan aurkitzen da.

Ikusmina

Partidu honek ikusmina piztu badu ere, ez da hau kontu berria. 1950eko azaroaren 11ko Diario Vascon horrela agertzen zuen gaztelaraz Bizkay kazetariak: *“Nabaria da Bera eta Lesakaren arteko futbol partidoetan ez dela beharrezkoa sailkapenean hobetzeko borroka edo txapelketaren bat jokoan egotea, hauen arteko leihak ikusmin haundienara iristeko”*.



1992-93 denboraldiko Lesakako Beti Gazte taldea

TTIPI - TTAPA



1992-93 denboraldiko Berako Gure Txokoa taldea

GOIKO

Urte bereko otsailaren 2an, honako hau idazten zuen kazetari berak: *“ikus dezagun zer dakarkigun hu-*

rrenge igandean Gure Txokoa eta Beti Gazteren arteko «match» miragarriak, muga aldeko futbol

ikuskituz gorenasuposatzen baitu”.

43 urte beranduago istoria errepikatuko da.

A
U
R
R
E
Z

A
U
R
R
E



GURE TXOKOA

BETI GAZTE

ATEZAINAK

Joseba Irazoki
Jose Mari Ugalde

Julian Palenzuela
Javier Zubieta

ATZELARIAK

Joxe Errandonea
Rafael Pombar
Jose Mari Gainza
Iñaki Ugarte
Oskar Urkiola
Jon Huizi

Jesus M^a Telletxea
Xabier Artola
Jose Mari Erkizia
Iñaki Erkizia
Andoni Sarasola
Angel Urtxegi

ERDILARIAK


Jon Irazoki
Iñaki Larrañaga
Aitor Erkizia
Javi Jabalera
Fernando Artieda

Xeberiano Txoperena
Juan Enrique Saralegi
Aitor Arozena
Endika Mindegia
Javier Igarzabal

AURRELARIAK

Baxilio Zapiain
Angel Mari Pombar
Gorka Ibargoien

Bixente Lekuona
Julian Iantzi
Pablo Hidalgo



Perurena eta Saralegik marka berriak ezarri Donezteben

206 kiloko harri borobila eta 306koa altxatu zituzten

Abenduaren 27an Donezteben egindako herri kirol jaialdian, Iñaki Perurenak eta Mikel Saralegik egindako markak izan ziren aipagarrienak. Lehenbizikoak, errekor berria paratu zuen 206 kiloko harri borobila altxatuz eta Mikelek, berriz, bere marka pertsonala gainditu zuen 306 kiloko harria bizkarretera jasoz.

Bertze lanetan ez zen Nafarroako errekorrik gainditu, baina Bear-Zana pilotalekura hurbildutako jendetzak izan zuen norgehiagoka politak ikusteko aukera, batez ere bigarren mailako arpana proban –Arantzak juxtu juxtu irabazi zion Ultzamari–, froga konbinatuan –Sunbilla garaile–edo nesken txinga proban.



Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako, urtarrilaren 9an Larraintzarko Polikiroldegian Sokatira Ikastaro berria burutu zen, momentu hauetan Munduko Txapeldunak diren Nuarbeko Taldearen eskutik.

Hamabostaldiko jokaldiak



Mikel Saralegi harri jasotzaile leitzarra.

Iñaki Perurenari aurre egiteko moduko harri jasotzaile bakarra dela erakutsi zuen Donezteben 306 kilokoa altxatuz. Gai nituko al du noizbait bere maixuaren marka?



Patxi Larretxea Arraiozko txingalaria.

Nafarroako txinga eramate errekorretik 300 metro-tara gelditu zen Doneztebeko jaialdian eta juezekin gorabehera haundiak izan zituen gainera.

Etxebizitzak

• **Iruritan** 142 m²tako pisua, kalefakzio, bi bainu eta ganbararekin salgai, farmaziaren gainean. ☎ 451518.

• **Baztanen** etxe edo baserria erosiko nuke. 20 milioi badituz. ☎ 451518.

• **Elizondon** pisua salgai, 5.600.000. ☎ 451518.

• **Lesakan** pisua eta 200m²tako bajera salgai. Leku industrial. Nahi izanez gero guzia edo bertez naz zatika. ☎ 637872.

• **Narbarten** pisua garaie eta baratzarekin alokatzen dut. ☎ 451518.

Lana

• **Tekniko-administrati- boeta** EGA tituluak dauzkan neska batek lan egingo luke Leitza inguruan administrati- bo bezala. ☎ 610882.

• **Neska** interna behar dut Hondarribian, etxeko lanak eta bi haur zaintzeko. ☎ 943-640100 (Txus).

• **Neska** bat ofrezitzen da zaharrak edo haurrak zaintzeko Lesaka inguruan edo Irunen. Esperientzia asko badut. ☎ 627623.

• **Haurtzantza** edo Puerikultura titulu eta EGA duen neska batek Beran edo Lesakan haurrak zaintzen edo arratsaldetan Lesakan edo Igantzin 5-10 laguneko talde bati euskara klaseak ematen lan egingen luke. ☎ 637911. Edurne Goia.

Salerosketak

• **Lokal** bat salgai Berako San Esteban 37an. 70 m² + 40 m² sotanoan. Norbaitek denda edo bulegoa montatzeko nahiko balu, dena prest du. ☎ 630970.

• **Sukalde** mixtoa salgai, egoera eta modu onean. ☎ 510318.

• **Trial** motoa salgai, Cota 335, hagitz egoera onean. ☎ 630404 (Jesus, 7etatik aintzina).

• **Nissan** Trade 2'8 furgoneta salgai, NA-AC matrikulakoa. ☎ 450333.

• **Renault** 9GTL kotxea salgai, egoera onean. ☎ 637334.

• **Hiru urtetako ahuntza** eta hilabeteko antxumea salgai. ☎ 513286.

• **Belar** idorra balotetan salgai eta baita esne tanke bat 220 litrotakoa. ☎ 599118

(Urdazubi).

• **Kawasaki** KLE-500/92 berria eta Ford Fiesta 1.6 XRZ (NA-U) arras ona salgai. Prezio interesgarria. ☎ 452048 (Elizondo).

• **Hogeitabost** ardi salgai. ☎ 514229.

• **Suzuki** Vitara JLX osoa salgai prezio interesgarrian. ☎ 637890.

• **Traktorea** 42 zaldikoa, kasik berria eta gutti ibilia salgai prezio onean. ☎ 453430 (ilunabarrean).

• **Kawasaki** KX 125 cross motoa salgai, gutti ibilia., 235.000 pztatan. (Pikabea). ☎ 450163.

Denetarik

• **Lesakan** toki onean denda traspasatzen da. Deitu 637401 ☎ra.

• **Etxalarren** Azkua aldean ahari bat agertu da, lau marka eta joarea dituena. Jabeak dei dezala ☎ 635159ra (Joseangel Goienetxe).

• **Elizondon** tailerra izandako bajera alokatzen da. Tailerra, aroztegia edo mueble almazena egiteko prestatua. Informazioa Doneztebeko Ezkalo.

Harremanak

• **Leitzako** Natalia Saralegiri zorionak bere 15. urtebetetzean. Bere lagunak bihotz bihotzez. Eider, Pili, Amaia, Nerea, Kristina eta Elsa.

• **Arantzako** Mirentxuri: zorionak zure urtebetetzean. Zure lagun Estibalitz.

• **Telleriko** Luis eta Jexuxa beraien urtebetetze egunean zoriondu nahi nituzke. Muxu haundi bat. Goizuetako familia.

• **Doneztebeko** Miren J.ri: urteberri on eta segi horren martxosa.

• **Leitzako** Ilenia Billa- bonarentzako zorionak eta besarkada beroa Azpirozko zure osaba eta izebaren partez zure 5. urtebetetzean.

• **Salto** del Negron den osaba Fernandori: zure urtebetetze egunean zorionak, muxuak eta indarrak bidaltzen daukizugu. Zurekin gaude, segi aintzinat. Zure ilobak.

• **Olabideko** Asier A.rentzat zorionak zure urtebetetze egunean. Festa haundia egin eta ongi pasa. Zure lagun izena.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

.....

.....

.....

.....

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK


HELBIDEA

HERRIA Tfnoa:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

DENBORAPASA

	●	▼		Jaurtigaia	▼	●	▼	
	Sakramentu kristaua			Seta		Idi, hitz elkar.		Zigarra
	▶			▼		▼		▼
	Galegoak, adibidez	▶						
			Idazteko tresna	▶		Musika nota	▶	
						Asiako Estatuak		
●	▼	Hesiz	Lehen eta azkenekoa	▶		Zezen zikiratu	▶	▼
●		inguratu	Bat			Iridioa		
▶		▼	▼		Gipuzkoako hiria	▶	▼	
					Nekatu			
Musika nota	▶		Ibarra	▶	▼			
Ikusten ez dutenak			Likido edangarria					
▶			▼			Gure autoetan	▶	
						Lehen bokalak		●
Ukimendua	▶					▼	Modu atzizkia	▶
Sagu artea							Sail	▼
▶							▼	Nitrogenoa
								Bokala
Pare bat	Urania	▶	Urrea	▶		Bi gehi bi	▶	▼
	Iaz		Barre			(Her.) Ezak		
▶	▼	Ipare-tarrak	▶	▼	(Errep.) Txori mota	▶	▼	500
		Gipuzkoako herria			Egunaren parte ilun			Erraten du
Su	▶	▼		Herri nafarra	▶	▼		▼
●				Alde!				
▶				▼			Kasik	▶
							Kontso-nantea	
Zauzka	▶					Bizk.	▶	▼
						Duk		

● Gure Iñauteetako zenbait pertsonaia

ENBIDO

**LAISTER
HELDU DA
IZANEN DUZU
IKUSIKO DUZU
IRAKURRIKO DUZU**

ttipi-ttaparen 92 urtekaria

- ▶ Urteko berririk inportanteenak herriz herri
- ▶ Mahai-inguruak
- ▶ Eskualdeko kirolei errepasso zabala
- ▶ Agenda bete betea

1.000 pezetatan salduko da liburu hau, zure herrian



**ALMACENES
ETXANIZ, S.A.**

Lesakako Iturria anaiak

URTARRILAN ERE

ESKEINTZA BEREZIAK

Armairu lakatua
+ lababoa + grifoa + ispilua
Guztia, 28.500 pztatan
BEZ barne

Juan Arana, 3

Tfnoa eta faxa: (943) 611767

IRUN

ZURE BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA:

- x MOBLEAK
- x GRIFERIAK
- x MANPARAK
- x AZULEJOAK
- x SANITARIOAK
- x OSAGARRIAK

*Prempuestoak
Konpromisirik
gabe*